

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2011ko AZAROAREN 15an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko azaroaren 15ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola  
Karlos Irazu Muñoa  
Jon Tejeria Otermin  
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea  
Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen, Xehetasun azterketa proiektuari hasierako onespena, hala bada.**


.../...

**LEHENENGO PUNTUA**

**EKIPAMENDU PUBLIKO BATEN LERROKADURAREN ZEHAZTEA  
LARRAULEN, XEHETASUN AZTERKETA PROIEKTUARI HASIERAKO  
ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak eskaturik, Eba Erkizia Brion arkitektoak idatzi duela Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen, Xehetasun azterketa proiektua.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak sustatutako eta Eba Erkizai Brion arkitektoak idatzitako Ekipamendu publiko baten lerrokaduraren zehaztea Larraulen Xehetasun azterketa proiektuari hasierako onspena ematea.

BIGARRENA: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 98. Artikuluan aurreikusten denarekin bat, proiektua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta hedadura gehien duen egunkari batean jendaurrean jartzea, hogeitun lanegunez, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe horretan, interesatuek aipaturiko espedientea udaletxeko idazkaritzan aztertu eta hala balegokie, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 19.55 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA